

Koikili Ermuan



drogeteniturri

TOKIKOM

Ermua eta Mallabiko aldizkaria 195. alea 2011ko azaroa

KIMIKA BIZIRIK

TOKI-GARAPEN ALORRA 2011 - Kimikaren Nazioarteko urtea ERMUA



*"Kimika: gure bizitza,
gure etorkizuna"*

Antolatzaileak:



innpulso

Red de ciudades de Ciencia e Innovación



Kofinantzatuta:



FECYT

FUNDACIÓN ESPAÑOLA PARA LA CIENCIA Y LA TECNOLOGÍA

Ekimena:



Kolaboratzailea:



UGARO

AHOLKULARITZA FISKALA,
JURIDIKOA
ETA KONTABILITATEKOA



Mutua General de Seguros

Fernando Orbe, ekonomista
Juan Jose Gorritxategi, abokatua

Zubiaurre, 27
177 postakutxa

ugaro@ugaro.com - forbe@ugaro.com

943 17 43 44
Faxa. 943 17 54 58

ARGITARATZAILEA:

Euskal Birusa
Elkarte Kulturala.

HELBIDEA:

Erdikokale 2, 1. (Elexoste)
247 posta-kutxa
943 17 93 50.
drogeten@gmail.com
www.euskalbirusa.org

ERREDAKZIO TALDEA:

Alazne Aiestaran, Igone
Amesti, Ibaia Azagirre,
Estibalitz González,
Asier Ibaibarriaga
eta Dorleta Vidal.

KOORDINAZIOA**ETA MAKETAZIOA:**

Dorleta Vidal.

HIZKUNTZ ARDURADUNA:

Alazne Aiestaran.

AZALEKO ARGAZKIA:

Asier Ibaibarriaga.

LAGUNTZAILEAK:

Iñaki Delgado,
Leire Elustondo,
Fede Iturriagagoitia,
Patxi López,
Nora Mateos
eta Valentin Mugarza.

ARGAZKIAK:

Adunia, Igone Amesti,
Ibaia Azagirre, Debegesa,
Estibalitz González,
Jose A. Gonzalo,
Asier Ibaibarriaga,
Valentin Mugarza
eta Dorleta Vidal.

PUBLIZITATEA:

688 63 28 76.

INPRIMATEGIA:

Gertu Koop. (Oñati).

BANAKETA:

Tamara Lorente, Nora
Mateos eta Xabat Uzuriaga.

TIRADA:

2.300 ale.

ISSN:

1133-973X.

LEGE GORDAILUA:

SS-213/94.

*Drogeteniturrrik ez du
bere gain hartzen
aldizkarian adierazitako
iritzien erantzukizunik.*

Bertoko hegaztiak

...Fede Iturriagagoitiak batuta

USO-TORTOLIA *Tórtola común* *Streptopelia turtur*



Usoetan txikiena den hau, hegazti koloretsua eta dotorea da: izan bere buru eta kokot urdinxkagatik, izan bere papar larrosaxkagatik, izan hegoetako urre koloreko lumengatik... ikusgarria da benetan! Pasekoa denez, iraila aldera gutxien pentsatzen den lekuan ikusi daiteke. Altan dagoenean oso zaratatsua da eta maiteminduaren urrumak urrunera entzuten dira. Habia adartxo batzurekin eta

xingle-xingle atontzen du; behin txitak jaiotakoan,

beste txoriek ez bezala, kumeon korotzak gurasoek ez dituzte habitik kanpora jaurtitzen, sikatzerakoan porlanan besteko gogorra suertatzen direlako. Borroka itzelak izaten dituzte arrek eme baten gorabeheran: horren erruz ikusten dira asko hegoren bat apurtuta, erpeak hautsita, begi bakarrarekin... Ai, maite-mina!

Hilabete honetan...

MUSIKA TALDE-TXOKO4	BOTEPRONTOAN 16
Adunia	Antton García
ELKARRIZKETA5-7	KIROLZALE 17
Esther Velasco eta Juan Carlos Martín	Koikili Lertxundiaren kanpua
MALLABIAN ZER?8-9	IRITZIA 18
Mallabiko I. duatloia	Itxaropena
MOTZEAN.. 10	SALEROSKETAK 19
12 lan 'Beldur barik' lehiaketan	Saldu, erosi edo agurtu
SAN MARTIN 11-14	ANTZINAKOAK.....20
Argazkiak, irabazleak, giroa	Ermuko eta Mallabiko argazkiak
ERMUAN ZER? 15	KALEKO INKESTA21
'Toni Torpedo' eleberria	Ermuko eta Mallabiko jendearen iritziak
	AGENDA22
	Abenduko agenda

Ondorengo erakundeek diruz lagundutako aldizkaria:



AYUNTAMIENTO DE LA VILLA DE ERMUA
ERMUA HIRIKO UDALA



MALLABIKO UDALA



Bizkaiko Foru Aldundia
Diputación Foral de Bizkaia



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

KULTURA SAILA
Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza

Adunia

1 **Sorrera.** Taldea 2002an sortu zen. Juanek folk taldea egin nahi zuen eta, 'Defolk' eta 'Flipin folk' taldeetan aritu ondoren, Luis Angelekin eta gaitero batzuekin batera, Eibarko Galiziako etxean entseatzan hasi ginen.

2 **Izena.** Arabiarretik datorren aditzondo bat da 'Adunia' eta aniztasuna edo ugaritasuna esan nahi du. Juanek proposatu zuen eta taldekideoi asko gustatu zitzaigun.

3 **Kideak.** Guztira 6 gara: Ermuko 3 lagun eta Eibar, Iurreta eta Debako bana. Juanek mandolina, biolina, bouzoukia, kora eta perkusioa jotzen ditu; Luis Angelek bateria eta bodrham-a; Franek gitarra akustikoa eta elektrikoa; Pedrok baxua; Jesusek gaita, whistleak eta ahotsa eta Nekanek, zeharkako flauta. Azken kontzertuetan, Zoraidak biolinarekin lagundu izan digu. Sortu zenetik aldaketa asko egon dira taldean: Juan eta Luis Angel dira hasieratik dauden bakarrak. Gaur egungo taldekideek bospasei urte daramatzagu elkarrekin eta luzaroan jarraitzea espero dugu.

4 **Estiloa.** Batez ere folk musika egiten dugu, rocka eta reggae-ekin uztartuz. Taldekide bakoitzak bere gustuko estiloa du eta horrek gure abestiengan eragina dauka.



5 **Abestiak.** Jotzen ditugun abestietatik 8 edo 9 gureak dira eta beste batzuk herrikoiak dira. Gainera, Wolfstone, Kepa Junkera edo Luar na Lubre bezalako taldeen abestiak jotzen ditugu. Gure abestietan, Afrikan bizi duten egoera ('Kora') edo Prestige petrolio-ontziarekin gertatutakoa ('Marcha de Noviembre') salatzen ahalegintzen gara. Beste abesti batzuk guregan eragina izan duten tokiei buruz hitz egiten dute: 'Sorginetxe' eta 'Taranta do Tanaro' abestiak, esaterako.

6 **Entseguak.** Asteazkenetan entseatzan dugu, Eibarko 2 de Mayo kaleko baxu batean.

7 **Azken kontzertua?** Azken zuzeneko Burgoseko Villagonzalo de Pedernalesen eman genuen urriaren 22 eta 23an. Hurrengo Durangon izango dela uste dugu, baina oraindik lotu barik daukagu.

8 **Diskorik, maketarik...** Laster zerbait kaleratzeko asmoa dugu eta orain arte 'Ahaztuak 1936-1977' diskoan parte hartu dugu. Frankismoko biktimen aldeko elkarteak kaleratu zuen disko hau Durangoko Liburu eta Disko Azokan.

9 **Kontaktua.** www.myspace.com/aduniefolk webgunean

**OKINDEGIA
GOZOTEGIA**

San Antonio

Izelaieta, 40 Tel. 17 00 63
Zubiaurre, 12 Tel. 17 38 40

AIZ

AIZ
Garraioak, S.L.

☎ 636 95 83 39 (JULEN)

ZABAL

ERMUA

IKASTOLA
38 urte Ermua euskalduntzen



Esther Velasco eta Juan Carlos Martín eibartarrak 'Juan Torres' sariaren azken irabazleak dira. Ermuko Udalak antolatutako lehiaketa honetan enpresa proiektu berritzaileak saritzen dira eta horren bitartez kreatibitatea, berrikuntza eta enpresa-izpiritua bultzatu nahi da. *“Negozio berri bati ekiteak norberaren bizitza aldatu egiten du”*, diote Udaleko Toki-Garapen alorretik eta hori dela eta, Gescune eta Errazting Coaching enpresa berrien sortzaileekin solasaldia izan dugu.

e|karrizketa

Esther Velasco.
I. saria: **Gesgune.**

“Egungo krisi egoera onena da Gesgune bezalako enpresa sortzeko”

Esther Velasco eibartarrak 32 urte ditu eta Gesgune enpresa martxan ipini du ‘Juan Torres’ lehiaketan lortutako saria medio.

- Zer da Gesgune?

Industrialdeen kudeaketarako zerbitzu integrala, enpresen arteko kooperazio plataforma eta sareen kudeaketarako zerbitzuak eskaintzen ditu Gesgunek: industrialde bereko enpresen arteko lankidetzak bultzatzen du; Administrazioarekin eta beste industrialdeen aliantzak bilatzen ditu; kooperazio horietatik sortu daitezkeen aukera sozialak, ingurumenekoak eta ekonomikoak identifikatu eta planifikatzen ditu eta azkenik azpiegitura komunak, zerbitzuak, erosketak eta hondakinak kudeatu ditzake, besteak beste.

- Nola bururatu zitzaizun industrialdeetan eragitea?

Inguruko enpresen egungo errealitate ekonomikoari irtenbidea bilatu nahian bururatu zitzaidan. Industrialde batzuk oso hondatuta daude, mantenurik ez dutelako, ezta jabe edo antolatzaile

elkarterik ere. Industrialdeak ondo kudeatuta baleude, enpresak lehiakorragoak izango liriateke, baliabideak optimizatuko lituzkete eta kooperazio proiektuak abiatzea ahalbidetuko litzateke.

- Zerk bultzatu zaitu enpresa berria sortzera?

32 urte ditut eta nire negozioa izateko ametsa izan dut betidanik. Orain beharrezkoa den prestaketa dudala ikusi dut, nahiz eta oraindik gauza asko ditudan ikasteko. Aurretik nire proiektua perfilatzen hasia banintzen ere, Juan Torres sariaren berri izan nuenean jauzia ematea erabaki nuen. Nire proiektua aurkeztu eta lehen saria irabazi dut: 6.000 euro, Izarrako bulegoa urtebetez doan erabiltzeko aukera eta hurrengo bi urtetan alokairua prezio berezian. Saria irabazi ez banu ere, proiektua martxan ipiniko nuke, baina laguntza garrantzitsua izan da.

- Krisi egoeran enpresa berriak martxan jartzea arriskutsua da?

Egungo egoera egokiena da Gesgune bezalako enpre-



sa martxan ipintzeko, produzitzeko ereduaren aldaketa jakintza eta ingurumenaren iraunkortasunean oinarritzeko aukera ematen duelako. Aipatutako ereduaren aldaketak, enpresek duten eraldatzeko eta merkatuan eragiteko formula berriak topatzeko duten gaitasuna probatzen du, batez ere, enpresa txikiei dagokienez.

- Zein da zure formazio akademikoa?

Enpresen Administrazio eta Zuzendaritzan lizentziatua naiz, kontabilitate eta finantzen espezialitatean, eta Zuzendaritza Ekonomikoan eta Finantzarioan masterra dut. Hainbat ikastaroez gain, gaur egun Zuzenbidea ikasten ari naiz eta industrialdeen kudeaketarako enpresak sortzeko ikastaroan ere parte hartzen dut.

- Zure aurreko lan espe-

rientziak zure gaurko lanarekin zerikusia du?

Ermua eta Mallabiko enpresetan egin dut lana, kontabilitatea eta nominak kudeatzen, eta azken hiru urtetan, Microdecoko internalizazio proiektu batean lanean jardun dut, Errumanian. Aurtengo otsailean bueltatu naiz bertatik eta oso esperientzia interesgarria izan da. Agian horrek eman dit nire negozioa martxan ipintzeko azken bultzada: ondo moldatu naiz bakarririk lan egiten eta enpresa bat zerotik ezartzen ikusteko aukera eman dit.

- Zurekin harremanetan jarri nahi dutenek nora jo behar dute?

info@gesgune.com helbidera idatzi dezakete edo 653 709150 telefonora deitu. Laster www.gesgune.com webgunea martxan egongo da.

“Industrialdeak ondo kudeatuta baleude, enpresak lehiakorragoak izango liriateke”

MENDIOLA
Restaurante - Jatetxea

Erdikokale, 19
Telefonoa 943 17 22 43

48260 ERMUA
(Bizkaia)

KRABI
Ileapaindegia
Estetika

Tel: 943 03 17 56

Diputazio, 5

ERMUA

Juan Carlos Martín. II. saria: Errazting Coaching. "Coaching'a gure artean geratuko da luzerako"

- Zein izan da zure ibilbide profesionala gaur egunera arte?

Psikologoa naiz, Coaching-en espezializatua, eta hasieran beste kontu batzuk lantzen hasi nintzen arren, Eibarko akademia batean langabetuei formazioa eskaintzeari ekin nion duela denbora dezente: bezeroaren arreta, gisa-baliabideak, lana topatzeko teknikak... Handik urte batzuetara, 'outplacement' aholkularitza batekin lanean hasi nintzen: Donostiako Tabakalera itxi behar zen eta bertako langileei inguruko enpresetan lanpostua eskaintzea zen nire lana. Azkenik, 2003an hasi eta gaur egunera arte lan-bitartekaria izan naiz.

- Zer dela eta erabaki duzu enpresa berria sortzea?

Tabakalera bukatu nuenean lagun eta ezagunekin lana topatzeko saioak egiten hasi nintzen. Garai horretan ez nekien oraindik 'coaching'a zer zen eta hala ere, horiek nire 'coaching'eko lehen saioak izan zirela esango nuke. Esperientzia gustatu zitzaidanez, saio horiei enpresa forma eman nahi izan nien eta,

dokumentatu eta gero, 'coaching' izena zuela jakin nuen.

- Eta zer da 'coaching'a?

Psikologiak iragana lantzen duen bitartean, 'coaching'ak egungo egoera aztertzen du etorkizunean norberak jarritako helburuak lortu ahal izateko. Hau da, helburu batzuk ipini eta norberak barnean duen onena ateratzen laguntzen du 'coaching'ak. Hainbat esparrutan jar daitezke helburu horiek, hala nola familiarian edota lanean. Nire enpresak, Errazting coachingek, lan esparrua jorratuko du batez ere.

- Zeintzuk dira Errazting Coaching-ek eskaintzen dituen zerbitzuak?

Hiru ataletan banatuko nituzke. Alde batetik gazteak orientatzen ditut, ikasketak aukeratu behar dituzten garai horretan. Bestalde, helburuak formatzen ditut: lana bilatu nahi badute edo enpresa berria sortu, esaterako. Azkenik, enpresei eta kirol taldeei 'coaching' exekutibo eskaintzen diet.

- 'Coaching'a modan dago?

50. hamarkada inguruan jaio zen 'coaching'a Ingalate-



rran eta gaur egun AEBetan sekulako arrakasta du. Hemen azkenaldian ezagutu dugu eta asko hitz egin da horri buruz. Nik uste dut 'coaching'a gurera etorri eta gure artean geratuko dela, ez da moda kontua. Horren onurak arin ikusiko ditugu.

- Eta onurra horiek erakusteko lanean zaude dagoeneko?

Bai, urtarrilaren 23ra arte Ermuko langabetu talde bati lana bilatzeko ikastaroa ematen ari naiz. Taldeko saioak eta saio indibidualak egiten ditugu eta ikasleek helburu batzuk bete behar dituzte, etxeko lan batzuk. Gainera enpresen arloa jorratzen hasi behar dut.

- 'Juan Torres' saria enpresa martxan jartzeko behar zuen bultzada izan da?

Oso aukera ona izan da. 2009an nire ideia garatzen hasi nintzen Debegesarekin eta sari honen berri izan nuenean tren honek ihes egitea ez nuela nahi pentsatu nuen: orain edo inoiz ez. Kasu hauetan arriskuak hartu behar dira baina, nola ez, arriskuak neurtu egin behar dira.

- Zurekin harremanetan jartzeko nora jo beharko litza-teke?

636925358 telefonora deitu daiteke edota juancarlosmartin@hotmail.com helbidera mezua bidali.

Dorleta Vidal

ONAINDIA HARATEGIA

Etxean egindako
odoloste eta txorizoak



Kantabria zeharbidea 1
48260 - ERMUA

Tel. 943 10 85 44
Mug. 678 64 85 41

Ferreteria/Burdindegia



- * Burdindegia
- * Tresneria
- * Sarrailagintza
- * Giltzak / Aginte automatikoak
- * Ontziteria / Kopak / Mahai-tresnak
- * Opari artikulak

Zubiaurre 25, Ermua ☎ 943 17 69 76 @ fer_anboto@hotmail.com
www.ferreteriaanboto.es



Descubre-té

- **Teak eta kafeak.** Jatorrizkoak eta aromatizatuak.
- **Belgiako txokolatea.**
- **Osagarriak:** teontziak, katiluak, infusoreak...
- **Eguneko tea dastagarri dugu.**
- **Oparitzeko neurria egindako poltsak.**

Probaleku 4 bis, behea - Ermua
943 03 15 81 / descubre-te@hotmail.com



optika

itze

- ✓ ENTZUMENAREN DOHAINEKO KONTROLAK
- ✓ AUDIFONOETAN AZKENENGO TEKNOLOGIA

Probaleku, 7

Tfnoa. 943 17 46 51

Mallabiko I. Mendi duatloiko antolatzaileak:

“Duatloian betekadie espero dogu”

Talde lan eta herri lanari esker, I. Mendi duatloiaz gozatzeko aukerie izengo dogu Mallabixen domekan, hilak 27. Hori dala eta, talde antolatzaileekin batu gara euren esperientzixie kontau daizkuen.

- Zer dala eta duatloie Mallabixen?

Mallabixen aspaldixen bazeuen gogue mendi edo bizikleta martxa bat antolatzeke eta bapatienti pasa dan uztaillen Zirkuituko arduradunari dei bat jaso eban Xabatek. Bermeo atzera bota zala proban antolaketan eta euren partez Mallabixen zirkuituen sartzie proposatu eban. Dei hori jaso eta herriko jende askori komentau eutsen. Holan batzar deialdixe zabaldu eta antolaketiaz hasi giñen.

- Antolaketa lanetan norzuk arittu zarie?

Barrixe herritik zabaldu eta egin gendun lehen bileratik aste hontara arte astero batzen gara lanerako gogo askokin. Batzarrotan 10 bat lagun elkartu gara. Beste jende askok esan euskun bileretara ezin ziela etorri, baiña domekan laguntzeko prest euezela.

- Duatloiek zer nolako lana suposatu dotsue?

Benetan lan gogorra da, baina aberasgarrix be bai! Eskerrak talde lan oso onak egin dogue. Lehenik eta



behin dirue lortu biher zan sarixendako, kartelanda... gauza askotarako. Erabaki gendun herri lanaz eruen biher gendule aurrera eta herri lanaz asko lortu leikela. Udalari laguntza handixe eskatu deutsegu, baiña ez ekonomikue! Dirue lortzeko herriko taberna, negozio eta enpresengana jo gendun. Danien erantzun ona izan dogu, eskertzekue da!!! Hortik aurrera beste dana hasi giñen lotzen: Zirkuitue, Diputaziñuan permissuek, baserritarren permissuek, anbulantzie, medikue, abituallamientue, kamisetak, pubizidadie zabaldu... Egun hori mallabitarrendako politte izetie espero dogu. Gainera Etbko kamarak etorriko die grabatzera, beraz gure herriko txokuek tele-

bistaz ikusteko aukerie izengo dogu!

- Egun horretan zenbat lagun egongo zarie lanien?

60 bat pertsona, bai! Aurreko egunetan zirkuitua garbitu eta markatu egin biherko da eta bertan egunien boxesak, abituallamientue, soiñu ekipuek ipiñi, karpak, dutxak, mangerrak prestau... goizean goiz ibiliko gara biherrien, baiña esan bihera dago jende asko dauela laguntzeko prest!

- Zenbat jende espero dozue?

Zirkuitu honetan asko jota 200 lagunek hartu al dabe parte; guk betekadie espero dogu. Eguraldixan goraberan be egongo da, baiña jende asko irrikaz dago parte hartzeko. Herriko gehixenok egun horretan antolaketa la-

netan ibiliko gara, baiña baten batzuk arittuko die: esatekue da Unai eta Xabat Uzuriaga anai arteko lehia be izengo dala.

- Umientzako be lekue eukiko dozue?

Bai gero! Umeentzako be egongo da duatloi bat, baiña hau karpa batzuetan egingo dogu zinta eta rodillo gaiñien. Bertan 8-10 urteko 6 mallabitar gaztek hartuko dabe parte eta 10-12 urteko beste 6k alkarren kontra taldeka.

- la dana ondo urtetzen jatzuen!

Egiten ikasten da, baiña baietz espero dogu!

Duatloian inguruko informazio gehiago, www.mendiduatloia.com helbidean.

Igone Amesti eta Ibaia Azagirre

IZOTZ
IZOZTUAK

ERMUA
Merkatua
54-55 postuak
943174101

ARRASATE
Merkatua
943770598

ELUR
ESTETIKA-EDERGINTZA

- Depilazioa
- Elektrologia
- Gorputz eta Aurpegirako tratamenduak
- Masajeak
- Pedikura
- Manikura (parafinarekin)
- Solariuma
- Laser depilazioan espezializatuak
- Kontsulta mediko-estetikoa

Aldapa 1 **943 17 60 52**

ILEAPAINDEGIA

Izaskun

Goienkale, 9 (Plaza San Martin)
48260 Ermua Bizkaia
Tel. 943.17 66 90

ILEAPAINDEGIA

ZELAI ETA LONGA NAGUSI NEKAZAL ETXIEK KALITATIAN DIPLOMA JASO DABE

Pasa dan urrixan 3en Getariko Balenciaga museuen jaso eben Mallabiko Zelai eta Longa Nagusi nekazal turismuek Eusko Jaurlaritzan eskutik Kalitate Turistikoarekiko Kompromisuan diploma. Hirugarren urtez Debegesan Debabarreneko zerbitzuetan lan egiten dabenei zuzendute dauen ikastaruen parte hartzen dabe Idoia Zenikazelaia eta Irune Irazola nekazal etxe honetako arduradunek. Bertan ikesittekue euren nekazal etxietan martxan jarri eta eba-luatzaile batek onartu ondoren, jaso dabe aurten bigarrenez honako diploma hau.



ASTO PROBAK ABENDUEN

Nahiz eta oraindik zehaztute ez egon, urtero lez abenduko zubixen ospatuko da Mallabiko Pisu Neurtuko Asto Proben V. Sarixe. Berau Mallabiko Udalak eta Txondor Herriko Kirol taldiek antolatzen dabe.

IDI PROBEN BIZKAIKO TXAPELKETA



Azaroan 12xen frontoiko probalekuen ospatu zan idi proben Bizkaiko txapelketa, El Corte Inglesen XXXVI. Sarixe. Honako hau izan zan sailkapena eta jaso zittuen sarixek:

1. **ECOMET:** 34 untze 1/4 eta 3.22 metro. 1.800 euro eta El Corte Ingles sarixe, mantak eta txapelak probalari eta karreteruentzako.
2. **SAN PELAYO:** 31 untze 1/2 eta 0.47 metro. 1.500 euro eta El Corte Ingles sarixe.
3. **MENDIPE:** 31 untze eta 4.15 metro. 1.200 euro eta El Corte Ingles sarixe.
4. **TXOMIN RENTERIA:** 30 untze 1/2 eta 1.80 metro. 1.000 euro eta El Corte Ingles sarixe.
5. **LUBERRI:** 26 untze 1/2 eta 0.55 metro. 900 euro eta El Corte Ingles sarixe.
6. **J.L. BIRITXINAGA:** 24 untze eta 5.48 metro. 750 euro eta El Corte Ingles sarixe.

D A T O Z E N A K

- Azaroak 26, 16:00etan: Ogixe egitten ikasteko ikastarue. Izen emotie 5 euro. Emoillie: Balentin Mugarza. Antolatzaillie: Izar Gorri-Xaparrada elkartie.



Azaroak 27, 11:00etan: Mallabiko 1. Mendi duatloie.

- Abenduak 3, 22:30ean: Xarma taldean kontzertue Herriko Tabernan. Antolatzaillie: Izar Gorri Elkartie.

- Abenduak 16, 22:00etan: Gabonetako kontzertue 'Laboaren omenez'. Jasokunde eta Mendibil abesbatzek antolatute.

- Abenduak 24, 19:00etan: Olentzeroren etorrerie. Izar Gorri Elkartiek antolatute.

- Abenduak 30, goiz eta arratsaldez: Haur parkea (11.30etik 13:30 eta 16:30-19:30 bittartien)

- Abenduak 31, 20:00etan: Triki-bertso-poteue.

MUGA **KIROLAK**

San Pelaio 4A behea
Telefona: 17 64 77
ERMUA

ARRIETA CORDEVI

Elektratresnak,
telebistak, bideoak,
musika aparatuak...

...prezio eta kalitate
ezin hobean.

VI. Centenario Kalea, 5 ERMUA

MALLABIKO Herriko taberna

Eguneko platerra (3€), menua,
plater konbinatuak, bokatak,
pintxoak, kazolak...

* Bazkari eta afariak
parrillan (enkarguz):
txuletak, arraina...

Enkarguak:
943 174 952
(astartetan itxita)

Pub Dakota

Probaleku, z/g
Ermua (Bizkaia)
dakotaermua@hotmail.com

ELEKTRAGAILUENTZAKO ZERBITZU TEKNIKOAK

EGANA

ALDAGAILUAK

GARBIGAILUAK - SUKALDEAK - HOZKAILUAK
LEHORGAILUAK ETA BEROGAILU ELEKTRIKOAK

DIPUTAZIOA 7 # TLF. 943 17 66 08 # ERMUA
BIDEBARRIETA 33 # TLF. 943 70 28 33 # EIBAR

GIPUZKOAKO BERTSOLARI TXAPELKETAKO FINALERAKO SARRERAK SALGAI

Abenduaren 18an, igandea, 'G puntua' bertsolari txapelketa-ko finala burutuko da Donostiako Illunbe zezen-plazan. Bertaratu nahi dutenek, abenduaren 12a baino lehen eskuratu beharko dituzte sarrerak Ermuko Txalaparta tabernan edota Mallabiko Izar Gorri tabernan, 18 euroren truke. Bertsozale Elkarteko bazkideek eta 16 urtetik berakok www.gpuntua.com webgunean eskuratu ditzakete euren sarrerak.

MARTXAN DA 2012KO INAUTERIETAKO KARTEL LEHIAKETA

Ermuko Udal Kultura sailak datorren urteko Inauterietako iragartzeko kartel lehiaketa deitu du. Lanek 42x30 eta 48x33 zm bitarteko neurriak izan beharko dituzte eta Lobiano kulturagunean aurkeztu beharko dira 2012ko otsailaren 1a baino lehen (9.00ak eta 21.00ak bitartean). 2012ko otsailaren 3an irabazleak aukeratu da eta honek 450 euroko saria jasoko du.

2.852 alek osatzen dute Sallabenteko liburutegia

Eskola liburutegia ireki berri du Sallabente eskolak, Udal Liburutegiko arduradunek jakinarazi dutenez. Honek 2.800 liburu baino gehiago ditu eta horietatik herena gaikako lanak dira. Gainontzekoak, berriz, haur eta gazteei zuzendutako liburuak dira, "gehienak euskaraz". Liburutegi honetan 50 aulki inguru daude, 12 mahaitan banatuta. Ermuko Udalak eta Udal Liburutegiak bultzatu dute ekimen hau, Eskola Liburutegiak Dinamizatzeo Planari jarraituz, eta horri esker "irakurzaletasuna sustatu nahi da, ikasleek informazio-iturriak erabiltzen ikas dezaten eta bi zeregin hauetan irakasleen nahiz gurasoen parte-hartzea bultzatu". Gainera, Udal Liburutegiko arduradunek diotenez "Ongarai Eskolako eskola liburutegia dinamizatzeo programa ere martxan dago, ikastetxe horretako irakasleei esker".

'Gure balioak' en sari-banaketa Lobianon burutu zen

Gemma Agirregomezkorta elgoibartarrak jaso du aurtengo 'Gure Balioak' errekonozimendua. Debegesak abiatutako ekimen horren epaimahaiak azaldu zuenez, "erabakia hartzea erraza izan da, Gemmak ezin hobe ordezkatzeko baititu eskualdean sustatu nahi diren lau gizarte-balioak: integritatea, errespetua, ekintzailetasuna eta lankidetzaren elkarlana". Bigarren edizio hau azaroaren 10ean burutu zen, Lobiano kulturagunean, eta 80 lagun inguruk parte hartu zuten, tartean, Ermuko alkate Carlos Totorikak, eta Elgoibarko alkatea den Alfredo Etxeberriak. Iazko irabazlea den Tere Gantxegik eman zion saria Gemma Agirregomezkortari eta ekitaldian zehar Markos eta Juan Manolo aktore ermuarren ikuskizunaz gozatzeko aukera egon zen.



Hamabi lan aurkeztu dira Beldur Barik lehiaketara

Azaroaren 25ean 'Beldur Barik Ermua 2011' lehiaketaren sari banaketa burutuko da Lobiano kulturagunean, 18.00etan. Ermuko gazteek 12 lan aurkeztu dituzte guztira lehiaketa honetara (iaz baino 4 lan gehiago), bi kategoriatan banatuta: 12 urtetik 17 urtera eta 18 urtetik 26ra, eta kategoria bakoitzeko irabazleek 300 euro jasoko dituzte. Gainera, Euskadiko lehiaketa orokorrean parte hartuko dute eta 1.000 euroko saria eskuratzeko aukera izango dute. Ermuarren lanak ikusteko www.beldurbarik.org/tag/ermua webgunera jo beharko da. Bestalde, azaroaren 26an, larunbata, II. Beldur Barik topaketa egingo da Donostian eta bertan berdintasunarekin eta tratu onekin konprometituta dauden gazte guztiak parte hartu ahal izango dute.

ARTARRAI OPARI DENDA



Goienkale, 5 • Telf. 943 17 44 19
ERMUA



D. ARRAL 97 S.L.
Tfn. 943 176 075 - Fax: 943 170 892
arral@arral97.com
www.arral97.com

Ardo banatzailea:

Luis Cañas
Cantosán Verdejo
Viña 65 Verdejo
Amaren
Añada Real
Cava Oriol Rosell
Nitida
Montepinos

Euskara eta euskaltegia
egin biak zureak



Teresa Murga, 2. solairua
Tel. 943 17 09 25

Proba-Leku

Heapaindegia - Estetika



Probaleku 3, 1A
Tel. 943 17 05 42



MUSIKA
ESKOLA

- Akordeoia
- Biolina
- Biolontxelo
- Bonbardino
- Flauta
- Kantua
- Gitarra
- Gitarra elektrikoa
- Gitarra baxua
- Lengoia musikala
- Klarinetea
- Panderoa
- Perkusioa
- Pianoa
- Saxofoia
- Trikitrixa
- Tronboia
- Tronpeta
- Txistua

Tel. 943 17 12 98 / 943 17 18 00 • albokamusikaeskola@hotmail.com



XXII. San Martin Azoka



203

Horixe laguntzen ibilitako pertsona eta taldeen kopurua.

203 musutrukeko laguntzaile, denak bat eginez jai-giroaren hobe beharrez.

Hauxe auzolanaren izpirituaren mamia!

Argi geratu dadila:

**DENON ARTEAN EGIN DUGU
POSIBLE GUREAN
PAREKORIK EZ DUEN
JAI ERRALDOI HAU!**

eskerrik asko denori! • **Talogintza:** Marijose Goigoga/ Maddi Goikoetxea/ Nati Yarza/ Gloria Mallea/ Mari Paz Araiztegi/ Mari Nieves Arregi/ Tina Perrino/ Begoña Aginaga/ Maria Totorika/ Maite Areitioaurtena/ Marivi Bilbao/ Mari Karmen Urkidi/ Lurdes Arrizabalaga/ M^a Luisa Aranburu/ Juanita Aspiazu/ Maritxu Etxebarria/ Carmen Telleria/ Maritxu Amillategi/ M^a Asun Aranburu/ Maite Alzola/ Begoña Laka/ Miren Astarloa/ Maitasun Idigoras/ Irune Aranberria/ Karmele Astarloa/ M^a Felisa Zenaruzabeitia/ Idurre Zuazua/ Haizea Manso/ Hiart Redondo/ Enaitz Mugerza/ Nora Mateos/ Oihane Vega/ Iratxe Arrizabalaga/ Eider Gisasola/ Andrea Díez/ Maite Yarza/ Olatz Mugarza/ Yoana Alonso/ Sandra Calvo/ Nerea Izagirre/ Ainhoa Cid/ Idoia Hernández/ Arantza Cañamarea/ Arrate Maguregi/ Natalia Arrieta/ Libe Elizondo

eskerrik asko denori! • **Muntaita/ desmuntaita:** Antonio Hernández/ Edu Arginzoniz/ Josu Garitagoitia/ Juanmi Bravo/ Bea Narbaiza/ Koldo Aranberria/ Jose Carlos Ibaibarriaga/ Asier Mandiola/ Aimar Mandiola/ Aitor Ogiza/ Olatz Gil/ Iraide Uriarte/ Nahikari Benito/ Laura Agudiña/ Eba Garcia/ Osvaldo Guirola/ Irune Yarza

eskerrik asko denori! • **Ticketak/ Errifak:** Yolanda Unamuno/ Idoia Narbaiza/ Rosa Bañuelos/ Inés Arano/ Lara Alonso/ Dani Dominguez/ Edurne Madariaga/ Roberto Bilbao/ Alberto Belar/ Noelia Moyano/ Joseinas Larrañaga/ Iñaki Totorika/ Alicia Lorenzo/ Juan Fernández/ Jone Redondo/ Ermuko Merkatarri eta Ostalarien Elkarte

eskerrik asko denori! • **Sahieskia:** Egoitz Gerrikabeitia/ Jon Alvarez/ Julen Gallastegi/ Anei Fernández/ Mikel Uriarte/ Oier Egaña/ Asier Gerrikabeitia/ José Luis Landaarroitajaregi/ José Antonio Lejardi/ Juan Ramón Areitioaurtena/ Manuel González/ Jesús Gómez/ Mariano Casado/ Aroia Lejardi/ Lorea Txapartegi/ Txomin Espilla/ Aintzane Plaza/ Jokin Txapartegi/ Asier Arellano/ Oier Araiztegi/ Iñaki Bildosola/ Alexander Idigoras

eskerrik asko denori! • **Txikurixak:** Arantxi Perosanz/ Thomas O' Callaghan/ José Antonio Martínez Carbajo/ Iker Sainz de Zaitegi/ Julen Berriozabal/ Oskar Morales/ Mario Moreno/ Nerea Gimeno/ Germán Pérez/ Jabi Oneka/ Marga Pérez/ Juanxo Díez/ Roge Bouzo/ Andoni Esmeralda/ Miguel Fernández/ Imanol Alvarez/ Eli Areitioaurtena/ Juanjo Gorritategi/ Julen Sololuz/ Ander Ormaetxea/ Nerea Verguizas/ Beñat Redondo/ Maialen Gómez/ Lara Alonso/ Inés Arano/ Leire Elustondo/ Andrea Díez/ Ane Odriozola/ Unai Rodríguez/ Josu Gómez/ Oihane Uriarte/ Ioritz Rasero/ Iker Hidalgo/ Nahikari Benito/ Idurre Zuazua/ Haizea Manso/ Hiart Redondo/ Nerea Redondo/ Maria Ormaetxea/ Nora Mateos/ Olatz Uriarte/ Ander Idigoras/ Iñaki Elgea/ Germán Izarra/ Edu Izarra

eskerrik asko denori! • **Buruko zapiak:** Mari Karmen Urkidi/ Maite Areitioaurtena/ Gurutze Txurruka

eskerrik asko denori! • **Aurreko/ondorengo egunetan:** Juan Antonio Izagirre/ Izagirre sendia/ Felitxo Araiztegi/ Alberto González/ Higinia Solozabal/ Moo González/ Piedad Lauzirika/ Ramón Redondo/ Goizargi Amesti/ Jon Telleria

eskerrik asko denori! • **Udaleko langile/erakundeak:** Fernando Aranberri/ Patxi López/ Agustín Gayoso/ Ermuko Udala/ UKE Ermua/ Mallabiko Udala/ Bizkaiko Foru Aldundiko Kultura Saila/ BBK banketxea

eskerrik asko denori! • **Epaimahaia:** Eva Zubizarreta/ Lorena López/ Bittor Rodríguez/ José Benito Boebide/ Ziriako Ortiz de Zarate/ Juan Mari Totorika

eskerrik asko denori! • **Bestelakoak:** Jon Larrañaga/ Alain Landarroitajaregi/ Iker Elustondo/ San Antonio Okindegia/ Casado Optika/ Bea Urreta/ José Cruz Urreta/ Merkatu Plaza/ Iñigo Pro

eskerrik asko denori! • **Erakusleiho lehiaketa:** Solozabal eta S. Pelaijo Estankoak/ Miguel Harategia/ Quetzal, Idoia, Angela, Cocoliso, Peque's eta Ramos Jantzidendak/ Izagirre, Gauzak eta Caprichos Kinkiladendak/ Mariasun eta Eguzkilore Loradendak/ Txutxerías Gozodenda/ San Antonio Okindegia/ Casado Optika / Sagardui Poltsadenda/ Senen eta Yonari Bitxitegiak/ Sare Informatika/ Irudi eta Gadifot Argazkidendak/ Urreta eta Anboto Burdindegia/ Doan eta Zapatziki Oinetakodendak/ Orbe Pertsianak/ Marfil eta Malla Ileapaindegia/ Fran eta Eva Fruitadenda/ Etxedreams Koltxoidenda/ Alboka Musika Eskola/ Danotz eta El gusto es mio Jatekodendak/ Kixka eta Hannigans Tabernak/ Procolor eta El baúl Margodendak/ Lorea Perosanz/ Natalia Arrieta

eskerrik asko denori! • **Taldeak:** Euskal Birusa Elkarte Kulturala/ Lobiano Gastronomía Elkarte/ Kaltxango AEK Euskaltegia/ Alboka Musika Eskola/ Txindurri Txistu eta Dantza Taldea/ Zipriztintzen Taldea/ Artarrai Mendi Taldea/ Mudo Drogot/ Leku Eder txokoa

eskerrik asko denori! • **Baserriak:** Miguel Angel Mugerza/ Eitzaga-Barrenengoa baserria eta bertako astoa / Angel Uriarte/ Aitzol Uriarte/ Estakua-goiko baserria/ Agarre-goikua baserria/ Barrenetxe baserria/ Anittu-goiko baserria

eskerrik asko denori! • **Etxekoak:** Joseinas Larrañaga/ Nagore Espilla/ Rosa Jaussi/ Gaizka Areitioaurtena/ Marines Txurruka/ Alicia Lorenzo/ Estibalitz González/ Asier Ibaibarriaga/ Manuel Moreno/ Eli Txurruka/ Nerea Berriozabal/ Alazne Aiestaran/ Nerea Izarra/ Piedi Ezagirre/ Ane Sáenz/ Markos Gimeno/ Dorleta Vidal/ Igone Amesti/ Amaia Arriaga

**ESKERRIK ASKO EUSKAL BIRUSEKO BAZKIDEEI,
AHAZTEN ZAIGUN BATEN BATI ETA OROKORREAN
ERMUKO HERRIARI!**

SAN MARTIN AZOKA

animaliak dantzariak

san martin azoka taloileak postuak epaimhaia txerria



TXERRIAREN ERRIFAREN ZENBAKIAK

1. saria:

Txerria edo 400 euro: 7359

Jose Ibaibarriaga.

2. saria:

Landetxe batean asteburu pasa bi lagunentzat: 3602

Jose Luis Sánchez - 'Monti' (Secretos taberna)

SAN MARTIN AZOKAKO SARIAK

Aurtengo epaimahaian honako hauek izan ziren: Bizkaiko Erlezain Elkarteko Jose Benito Beobide, Mendi Nekazaritza Elkarteko Juan Mari Totorika, Idiazabal gaztako teknikaria den Bittor Rodríguez, Eva Zubizarreta eta Ziriako Ortiz de Zarate herriko ordezkari bezala, Ermuko Udaleko zinegotzia den Lorena López eta Asier Ibaibarriaga Euskal Birusaren izenean.

Euren erabakia:

FRUTA ETA ORTUARIAK

1. saria: Maria Pilar Mallabia, Mallabiko Agarre baserrikoa.

2. saria: Mila Amillategi, Mallabiko Barrenetxe baserrikoa.

GAZTA

1. saria: Patxi Baskaran, Markinako Santa Marina baserrikoa.

2. saria: Jokin Iriarte, Markinako Eizar baserrikoa.

OGIA

1. saria: Maite Leanizbarrutia. Elorrioko Barrutia baserrikoa.

EZTIA

Txilar eztia: Ekaitz Aurre, Portugaletekoa.

Milalore eztia: Valentin Llona, Zornotzako Urikoa baserrikoa.

SAGARDOA

1. saria: Jose Antonio Bilbao, Markinako Axpe baserrikoa.

TXAKOLINA

Sari gabe.

AIPAMEN BEREZIA (SALTOKIRIK TXUKUNENA)

Jose Lonbide (Eibar).

BASERRITAR JANTZIEN LEHIAKETA

Neska: Silvia Moya.

Mutila: Haritz Gerrikabeitia

Saria: Bi lagunentzako afari bana.

ERAKUSLEIHO LEHIAKETA

Senén bitxi-dendak jaso du aurten ere erakusleho lehiaketako lehen saria, *“bere produktuak azokan txertatzen jakiteagatik, erreplika ikusgarriak eginez”*, epaimahaiaren iritziz. Bigarren saria Txutxerias gozo-dendak jaso du, *“azoka umeei hurbiltzeko egindako ahaleginagatik”*. Epaimahaia honakoek osatu dute: Lorea Perosanz (dekoratzailea), Natalia Arrieta (margolaria) eta Estibalitz González (dendari ohia).





Ia 60 lagun bildu ziren Gaztañerren

Aurtengo Gaztañerren azaroaren 14an burutu zen, astelehena, eta hau da Berbalaguneko arduraduna den Juanmi Bravok idatzi digun kronika: "Azken urteetan bezala, kontuan izan dugu jendearen 'San Martin ajea' eta afaria izan beharrean, afari-merienda egin dugu. Hori bai, horrek ez zion giroari dagokionez ezer kendu, gustura aritu ginen denok eskara praktikatu, barre egin, jan, edan eta kantatzen! Ekitaldia 19.30ean hasi eta 22.00etan bukatu zen. Dena primeran irten zen hein handi batean Erretena elkarteko Berbalagunen aritzen diren kideengatik. Beraz, aprobetxatu nahiko genuke aukera hau hauei eskerrak emateko. Mila esker neskok!!!!".

400 lagunetik gora aurtengo bertso jaialdian

Urtero legez, San Martin kulturalaren baitan bertso jaialdia burutu da (azaroaren 4an). Miren Amuriza, Beñat Ugartezea, Amets Arzallus, Maialen Lujanbio, Sebastian Lizaso eta Unai Iturriaga aritu ziren bertsotan eta Andoni Egaña izan zuten gai-jartzaile. Mailarik altueneko bertsolari hauen saioa ikustera 400 lagun baino gehiago bildu ziren Antzokian, aurreko urteetako marka guztiak hautsiz.

Hostoak ikuskizuna azaroaren 25ean

Oreka TX, Amaren Alabak eta Kukai musika eta dantza taldeek 'Hostoak' ikuskizuna eskainiko dute azaroaren 25ean, ostirala, Ermua Antzokian, 22.15ean hasita. Urriko Drogeteniturrin bina sarrerez osatutako bi sari zozketatu genituen eta hauek izan dira irabazleak: Alazne Bravo Belar eta Amaia Arriaga Lizaur. Zorionak!



Mikel Txapartegik irabazi du aurtengo Kaltxango AEKko otzara



Infreñu
Taberna

Kardenal Orbe plaza
943 174584
www.infretaberna.com

Ume eta gazteentzako
zapata-denda
berria ERMUAN...

Arinka

Orbe Kardinalaren plaza 8, behea
ERMUA - Bizkaia
943 17 41 26

solozabal
tabakoak

torrekua 1
tel./fax: 943 17 07 33

OUTUMURO
Kafetegia

Kafe eta tarta bereziak
Aukera handia TE eta INFUSIOETAN

Astelehenetik ostiralera getan zabaltzen dugu

Jose A. Gonzalo, 'Toni Torpedo' eleberriaren egilea:

"Duela 4 urte idatzi nituen eleberri honen lehen hitzak"

Jose Antonio Gonzalo ermuarrak bere lehen eleberria kaleratu berri du, 'Toni Torpedo'. 80. hamarkadan girotuta, boxeolari baten istorioa kontatzen du 31 urteko gazte honen liburuak. Dagoeneko 500 ale jarri dira salgai herriko liburu-dendetan.

- *Nor da Toni Torpedo?*

Toni Torpedo boxeolari gaztea da eta eleberria girotzeko hainbat arratsalde eman ditut Bilboko liburutegietako artxiboetan dokumentazio lana egiten. Boxeoaren inguruko albisteak bilatu behar izan ditut, kirol minoritarioa ez zen garai horretako albisteak, alegia.

- *Eta eleberria idazten zenbat denbora eman duzu?*

Lehen hitzak duela 4 urte inguru idatzi nituen: ideiak, egoerak, pertsonaiak eta esaldi solteak, besteak beste. Denbora libreak idatzi dut eleberria, presa barik. Hori dela eta, goizaldeko 3ak arte egon izan naiz egun batzuetan idazten eta aste batzuetan ez diot jaramonik egin.

- *Eleberria azaroan kaleratu da. Zer sentitu zenuen liburu estreinakoz ikusi zenuenean?*

Hainbeste denbora eskaini eta gero, emaitza paperean ikustea oso polita da. Gaine-

ra, liburuak erakargarria dela uste dut, lan txukuna egin delako edizioan eta baita portadan ere.

- *Non eskuratu daiteke liburuak?*

Bi bide daude: Internet bidez (www.tonitorpedo.com webgunean) edo Maribel, Xiripot eta Neira liburu-dendetan.


- *Horrez gain, literaturari eskainitako bloga duzu. Zer topatu daiteke bertan?*

Eleberria ezagutzera emateko plataforma izatea nahi nuen bloga, baina horrez gain, nik idatzitako kontakizun laburrak eta liburu eta pelikulen aipamenak ere irakur daitezke.

- *Mikro-ipuina ere idazten dituzu. Zer dira mikro-ipuina?*

Literaturarekin jolasteko ariketak, nolabait esateko. Esaterako, 5 hitz ematen dizkizute eta horiek erabiliz 150 hitzez osatutako ipuina osatu behar duzu.

- *Lehiaketetan parte hartzen duzu?*



Bai, betidanik gustatu izan zait. Ideiak astintzeko modu paregabea da, ideia eta gai originalak bilatu behar dituzulako epaimahaiak zure lana saritzeko. Inoiz horrelako sariren bat irabazi izan dut, baina oso zaila da, batzuetan 800 lan baino gehiago aurkezten direlako.

- *Betidanik izan duzu literaturarekin hain harreman estua?*

Betidanik gustatu izan zait irakurtzea eta horrek eraman ninduen idaztera. Atera berri dudana eleberria ez da oso luzea (150 orri inguru ditu) eta hori dela eta, era-

kargarria suerta daiteke liburu luzeak irakurtzen ohituta ez daudenentzat.

- *Literatura zure ogibide bihurtu nahiko zenuke?*

Gutxi batzuk bizi daitezke literaturaz, oso ona izan behar duzu. Nik Armeria eskolan Telekomunikazioko goimodulua ikasi nuen eta informatika kontuetan egiten dut lan. Egia esan, idaztea hobya dut eta horrela izango da aurrerantzean ere. Nahiago dut atzetik inor ez izatea, epe zehatzak ipintzen edo liburuak ondo saldu ahal izateko baldintzak ezartzen.

Dorleta Vidal

SAGARDUI
poltsak

Zubiaurre, 29 - Ermua - 943 170305

FOTOKOPIAK
KOLOREZKO FOTOKOPIAK
HANDIPENAK - TXIKIPENAK
PLANOAK - AZALEZTAPENAK
FAX PUBLIKOAK
INPRIMAKETAK KAMISSETATAN

Komentukua, 6 behea 48260 ERMUA TEL. / FAX 943 17 42 89

OSASUNA • ESTETIKA EDERTASUNA

Ile-apaindegi bat baino gehiago!

Egokitutako burua garbitzeko konketa

943 17 28 09 • Goienkale 12

ANTTON GARCIA

- *Zer egiten du deustuar batek Ermuan?*

Lan eta lan. Duela 6 urte oposaketak egin nituen eta postua atera nuenez, hemen naiz zuen artean.

- *Zein da zure egitekoa?*

Udal Kirol Erakundeak kudeatzen dituen instalakuntzen koordinazioa daramat. Aritzemendi pilotalekua, Kiroldegia eta Beti Ondoko kirol-gunea. Bertako ikastaroen antolakuntza, kudeaketa, eta, horrez gain, kirol arloko diru-laguntzen bitartekaritza lana kirol zinegotziarekin.

- *Zein bilakaera izan du urte hauetan guztietan Udal kirol Erakundeak?*

Kirol ikastaroak eta kudeaketa egonkortzea lortu dugu eta etorkizuneko erronkei aurre egiteko oinarri sendo bat eraikitzea. Oraindik arlo asko daude jorratze-ko, baina horretan ari gara.

- *Adibidez?*

Bezeroekiko komunikazioa hobetu beharra daukagu.

- *Lanetik kanpo zer egitea duzu gustuko?*

Lagunekin egon, mendi irteerak egin, bizikleta hartu eta bidaiatu, besteak beste.

- *Eguneko zure momentua?*

Neska-laguna Leonen bizi da eta berarekin telefonoz hitz egiten dudun unea.

- *Gurasoak Burgosekoak dituzu. Nola hurbildu zinen euskarara?*

Aitari esker. Euskaldun berria da. Bai aitak eta baita amak ere oso argi zuten anaia eta biok Ikastolara joan behar genuela. Hor ikasi nuen.



Bilboko Deustuko auzoan jaioa, nahiz eta erro nagusiak Burgos aldean izan. 6 urte daramatza Ermuko Udal Kirol Erakundeak kirol koordinaziorako teknikari gisa lanean. Kirolaria, naturazalea eta pertsona alaia eta irekia. Gai askoren inguruan gogoeta luze eta sakona egindakoa.

- *Nola lasaitzen duzu zure burua?*

Sarritan bakardadean. Denboraren nozioa galtzen dudanean. Denbora ez dela existitzen imajinatuz.

- *Gaztetako oroitzapenak?*

Nire amaren jaioterria, Burgoseko herri txiki bat. Bertan eman genituen asteburu eta udara asko.

- *Zerk jartzen zaitu sutan?*

Arduragabekeriak eta gertuko jendearengan fideltasun faltak.

- *Jaiki eta egiten duzun aurreneko gauza?*

Dutxa

- *Pelikula bat?*

Benito Zambranoren 'La voz dormida'.

- *Krisia...*

Inguruan zorionez ez dudana sumatu. Duela 2 hilabete goizeko lehen orduan, Deustuko metroan 50 lagun zain geunden eta 30 urterekin gazteena neu nintzela ohartu nintzen. Zer pentsatua sorrarazi zidan. Gazteen langabezi tasa %45 dela.

- *Zure bizitzako eredu...*

Maila pribatua ama eta aita. Beraiek izan duten bi-

zitza baino hobea izateko oinarriak jartzeagatik. Hortik kanpo, iraultzari esanahia eman dioten pertsonak. Musika letretan El Drogas, literaturan Sarrionandia, Julietta Venegasek amodioari jartzen dizkion hitzak...

- *Mendia ala itsasoa?*

Oreka bilatzen saiatzen naiz. Mendia ikuskera zabal batetik askatasunaren isla eta itsasoa, urak berak eta olatuek sortutako lasaitasunagatik.

- *Euskal Herriko leku bat?*

Iratiko Egurg menditxoak.

- *Afaritan nor gonbidatuko zenuke?*

Eguno egoera politikoa ikusita, alderdi bakoitzeko ordezkari bat.

- *Bake bidean ote gaude?*

Azkenaldian pausoak eman dira eta horretara bideratzen gaituztela uste dut. Orain sorkuntza behar da, imajinazioa, erresistentzia etapatik zer edo zer eraikitzerako pausoan. Egiten ari garen honetan sinetsi beharra dago.

- *Egunero egingo dut, baina egin gabe daukazun hori?*

Nik egindako proiektu profesionala garatzea.

- *Asmakuntza onena?*

Egiteke dagoela uste dut. Liberte, Egalite, Fraternite, gauzatu gabeko ideiak dira. Ideia horiek gauzatzean egingo da iraultza handiena. Asmakizun materialak eman dira, baina asmakizun ideologiko handiena ez da oraindik gauzatu.

Asier Ibaibarriaga



PUB YOMY

**Zubiaurre
kalearen
bihotzean**



Gabonetan gaztetxoentzat futbol teknifikazio kanpusa eskainiko du Ermuan Koikilik

Gabonetan gaztetxoentzat futbol teknifikazio kanpusa eskainiko du Ermuan Athleticeko Koikilik. Ekimena azaroaren 14ean aurkeztu zuten Beti Ondoko kirol instalakuntzetan, Integral Sports enpresaren eta Ermuko Udal Kirol Erakundearen eskutik eta Baque Fundazioaren babesarekin.

Athletic taldeko Koikili Lertxundi futbol jokalariren gidaritzapean, 7 eta 14 urte bitarteko neska zein mutil gaztetxoentzat zuzenduta egongo da futbol teknifikazio kanpusa eta abenduaren 26tik 30era bitartean egingo da. Jardunaldi bakoitzean gazteek lau orduz jardungo dute lanean. Izena emateko epea dagoeneko zabalik da eta 150 euroko kostua izango du. Ermuarrek 25 euroko beharpena izango dute. Matrikularen barne daude, partaide bakoitzari emango zaizkion kirol ekipamendua, bazkaria eta eguneko jardura guztiak.

Integral Sports enpresak estreinakoz Ermuan gauzatu duen Koikili Lertxundiren

teknifikazio kanpusaren helburua, jokalarien norbanako teknika hobetzeaz gain, talde lana sustatzea izango da. Horrez gain, euskarak ere bere garrantzia hartuko du, entrenatzaile gisa arituko direnak elebidunak izateaz gain, Ermuko ikastaroak euskaraz eta gazteleraz egiteko aukera izango delako. Kanpusa landuko duten entrenatzaileek, futbolarekin eta jokalariekin harreman estua izateaz gain, esperientzia handikoak eta tituludunak izango dira. Aitor Larrazabal jokalaria ohia adibidez.

Egitaraua

Lau urte daramatza Integral Sports enpresak halako kanpusak antolatzen. Besteak beste Leioako Askartza Claret ikastetxean, Loiuako Lauro Ikastolan, Orozkon eta Gatikan ere antolatu izan dituzte halako ekimenak eta gutxi gorabehera 40-50 ume izatea espero dute. Izena ematerako orduan lehentasuna Ermuko gaztetxoek izango badute ere, inguruko herrietako edozeinek dituzte ateak irekita.



Hauxe izango da jardunaldi bakoitzeko egitaraua:

- 9.45etatik 10.00etara: Kanpusera iristea eta aldageletan sartzea
- 10.00etatik 11.10era: Lehen entrenamendu saioa
- 11.15etatik 11.35era: Atsedena eta hamaiketako
- 11.40etatik 12.50era: Bigarren entrenamendu saioa

- 12.55etatik 14.00etara: Igerilekuan igeriketa saioa
- 14.00etatik 14.10era: Duxta
- 14.15etan: Ekitaldiaren amaiera.

Ekimenaren inguruko xehetasun guztiak <http://campuskoikili.com/> webgune ofizialean aurki daitezke.

Asier Ibaibarriaga

T XALAPARTA
ABERNA

Eta asteburuetan
pintxoak, afariak
eta bokatak!

- Itsaskabra pudina.
- Txipiroiak.
- Piper beteak: okela edo ondoak.
- Fritoak: urdaiazpikoa edo ondoak.
- Redondo saltsan.
- Sagar tarta.
- Gazta tarta.
- Tortila patata...

Erdikokale 13
(Ermua)

ENKARGYAK
943 030 299

komunitateak
aseguruak

San Pelayo

aholkularitza
fiskal eta juridikoa

Tel. /Fax. 943 17 15 65 / 943 17 25 04
San Pelaio 6-A (Eroski gainean) 46 P.K. - Ermua

Quetzal

Arropa, bitxiak,
opariak... zerb ez!

Goienkale 9 · ERMUA
943170065

CITROËN
AUTOS AMEDI

Zearreko buelta eraikina 3, L8 pab.
Tel. eta Faxe. 943 17 04 14

MALLA
ileapaindegia

Probaleku 8, behea

© 943 17 18 50

DULCE BEBÉ PEQUE'S

0 eta 4 urte
bitarteko
umeentzako
moda eta
puerikultura

dulce bebé

Zubiaurre 30 · ERMUA
943 170 005

Itxaropena

Hauteskundeetan bakoitzak bere botoa erabili du. Eta orain zer? Ohikoa den bezala, badirudi alderdi guztietako ordezkariak poz-pozik daudela. Eta gu? Guretzat, itxaropenarako bidea ireki da...

Hortxe daude irabazleak agindutakoa sinetsita, egoera ekonomikoak orokorrean eta bereak bereziki onera egingo duen itxaropena dutenak. Gal-tzaileek ez dute fede handirik horretan, baina hurrengo hauteskundeetan irabazteko itxaropenari eusten diote. Beti mozkina ateratzeko irrikan dauden horien artean, ezinbestekoak dira sinestartzeko itxaropena dute. Azkenik, beraien ahotsa eta eskakizunak entzungo diren itxaropena dutenen taldea dago, gero inork jaramonik egiten ez badie ere. Gauza bakar batek lotzen ditu guztiak; zain egote hutsak, itxarote pasiboak...

Badago ordea, beste ITXAROPEN mota bat: ilusioa, ekimena eta partaidetza uztartzen dituen, politika-

rien eskuetan uzten ez dena, etorkizun ezberdin batean sinestartzeko diguna, norberaren ahaleginean oinarritzen dena, gure patuaren jabe egiten gaituena, guk geuk sortzen duguna!!

Kontsumoaren eta Merkatuen gizartea desagerrarazi eta Pertsonen gizartea jarri behar dugu martxan: krisirik, murrizketarik eta ekonomia- ren morroitzarik gabeko gizartea; iraunkortasuna, elkartasuna eta berdintasuna baloratzen dituen gizartea; gero eta gehiago edukitzearen ordeztu, gero eta gehiago izatea nahi duen gizartea...

Badugu gainera, beste erronka bat, aurrekoa baino garrantzitsuagoa agian: bakearen alde egitea. Honetan ere, ezberdinak gara, baina aurrekoan bezala, ez genuke lan hori inoren eskuetan utzi beharko. Bakea nahi badugu guztion artean lortu beharko dugu, guztion ahalegin eta ilusioarekin. Bidea luzea izango da, bai, baina benetan merezi du.



Iñaki Delgado

Pauso anitz eman beharko ditugu elkarrekin. Bidegabekeria betiko desagerrarazteko bidezidor honetan, ezinbestekoa da eragindako kalte eta min guztiak aitortzea eta ahal den neurrian konpentsatzea. Ez da preso politikorik egongo ezta legearen ize- nean egiten diren eskubide urraketa- rik ere ez... Ideia guztiak defendagari egingo dituzte Askatasunak, Justiziak eta Baketzeak, behingoz gure etorkizunaren jabe egiteko aukera emanaz, orain arte guk geuk nahi duguna izateko amets ukiezina egi bihurtuz.

Bakea da nire itxaropena.

**Bakea nahi badugu,
guztion ahalegin eta ilusioarekin
lortu beharko dugu**

**TXINDURRI
TALDEA
Tokian
tokiko**

PRO

- ARRAINDEGIA
- ITSASKIAK
- ARRAIN FRESKOAK ETA IZOZTUAK

**ESKAINNTZA BEREZIA
OSTIRALERO**

Zubiaurre, 21 baxua
Tfnoa. 17 16 96 (despatxua)
" 17 24 33 (etxea)
Merkatu Plaza, Tfnoa. 17 41 59
ERMUA



Enter
INFORMÁTICA

SALMENTAK / IRAKASKUNTZA / ZERBITZU TEKNIKOA

VI Centenario 19, behea
Tel. 943 17 90 37
e-maila: enter-i@arrakis.es

O eta 8 urte bitarteko umeentzako moda eta puerikultura

mimitos

Zapatak, pijamak,
lentzeria, aulkiak,
sehaskak, tronak...
behar duten guztia!

*Eta gainera 'Hello Kitty'-ren
artikulu mordoa!*

Probaleku 4, Ermua · ☎ 943 033 830

LANA

Emakumea eskaintzen da orduka umeak edo nagusiak zaintzeko
© 646143287



Azaroaren 8an
Zorionak Danel zure 8. urtebetetzean etxeko guztion partez!



Abenduaren 13an
Zorionak!! Aurten prestatu belarriak... Musu asko etxekoen partez.



Abenduaren 12an
Zorionak Uxue zure laugarren urtebetetzean familia osoaren partez.



Azaroaren 13an
Zorionak amatxo. Oso ondo pasatu genuen zure egunean. Patxo bat Ainhoa, Maite eta aitaren partez.



Abenduaren 19an
Zorionak Maten 16. urtebetetzean eta musu handi bat zure lehengusuen partez: Jone, Aitzol eta Nerea.



Abenduaren 4an - Zorionak eta musu handi-handi bat Jone, aita eta amaren partez. Txapeldun!!



Abenduaren 7an
Gure printzesari 6 musu ama eta bere lehengusu Oinatzen partez.



Abenduaren 17an
Zorionak aita! Amaren, Alaitzen eta Juleneren partez. Musu bat. Maite zaitugu!



Abenduaren 3an
Zorionak txapeldun!! Hiru musu handi aita eta amaren partez.



Azaroaren 16an
Zorionak Julen zure 3. urtebetetzean zure gurasoen partez, Virginia eta Jesus.



Azaroaren 15ean
Ongi etorri Aiert! Zelako poztasune familixiantzako! Danok adurre darixola gauz! Ene... polittori!



Abenduaren 1ean
Zorionak Iraitz, zure aita, ama eta Manexen partez. Musu handi bat!



Azaroaren 4an (Ana) eta 21ean (Jordi)
Zorionak bioi familia guztiaren partez, gozatu ezazue zuen bi altxorrekina batera, Maddi eta Endika.

Bidali zure zorion-agurra edo iragarkia drogeten@gmail.com helbidera edo Elexostera ekarri (Erdikokale 2, 1.).
Hurrengo zenbakirako azken eguna: **ABENDUAREN 12a**




Zubiaurre 14
Telef. 943 17 28 88
48260 ERMUA

EGUZKI LORE



URRETA burdindenda

- * Etxea
- * Tresneria
- * Brikolaia
- * Rielak
- * Giltzak
- * Zerrailgintza
- * Kit altzariak

Zeharkalea 8 Tel: 943 17 65 61 ERMUA



errespetua

Debabarrena gara **gurebalioak**
www.gurebalioak.com DEBABARRENA

MALLABIA 1955

Mallabiko San Martin ermitako etxaburuko arbolaren azpian, aurrekua dantzatu ondoren ateratako argazkia, 1955 urtean gutxi gorabehera. Bertan agertzen dira:

Emilio Pradera, Patxi Agirre, Bittor Alberdi, Jose Totorika, Jose Astarloa, Isidora Astarloa, Julia Zabala, Juan Bilbao, Donato Agirre Bittoria Arana, Dolores Gallastegi, Juanita Agirre, Juanito Zubiate, Maria Luisa Aranburu, Hilario Aranburu, Purita Arana, Bitoriano Zubiate eta Kontxi Uriarte.



ERMUA 1955



San Pelaioiko futbol zelaia egin aurretik (1958an inauguratu zen), etxean jokatu beharreko partidua Elorrioren eta Durangon jokatzeko zitezten herriko jokalariek, Ermuan ez zuten-eta instalaziorik.

Argazkian agertzen dira:

1. Alfonso Carlos Zubizarreta
2. Luis Mari Izarra
3. Victor Mallagarai
4. Pedro López
5. Jesus Arrizabalaga
6. Esteban Bilbao
7. Carlos Olañeta
8. Tomás Gorrotxategi
9. Argazkilariairen semea
10. Loren Goitandia
11. Luis Mari Izagirre
12. Iñaki Izagirre

Bar London
Komentukua 2, Ermua
Tlf: 943173312

Pub SCORPIO

Zubiaurre, 21
ERMUA



Euren aisialdiaren zati bat prentsa, aldizkariak, komiki eta liburuak irakurtzen igarotzen dutela diote EAEko biztanle gehienek (%91k) eta soilik %9k ez duela inoiz edo ia inoiz irakurtzen. Astegunetan %12k hamabost minutu baino gutxiago igarotzen du irakurtzen, %29k hamabost minutu eta ordu erdi artean, beste %29k ordu erdi eta ordu bete artean, %21ek ordubete eta bi ordu artean eta %5ek hortik gora.

Eta zuk, egunero irakurtzen duzu prentsa? Zein euskarritan?

Egunero irakurtzen dut prentsa, informatuta egoteko. Bi euskarri kontsultatzen ditut, tabernan dagoen papereko edizioa eta Internet.

Batetik, krisia dela bide, merkatuen gora-beheren berri izateko, El Economista edo Mis finanzas irakurtzen ditut eta bestetik, El Correo, gertutasuna eskaintzen baitu.



Miguel Ángel Vaquero, 37 urte



Oier Pérez, 18 urte

Ez dut prentsa egunero irakurtzen, asteburutan soilik egiten dut. Paperezko formatua kontsumitzen dudan arren, gertakari zehatzak Interneten bilatzen ditut. Nahiz eta, beste egunkari zein aldizkari batzuk irakurri izan ditudan, etxean erosten dugun El Correo irakurtzen dut gehien.



Prentsa egunero irakurtzen dut eta Internet da erabiltzen dudana euskarria. El Correo egunkaria egunero, eta Drogeteniturrri zein Eta Kitto aldizkariak hilero irakurtzen ditut.

Maite Askasibar, 43 urte

Ez dut egunkaria askotan irakurtzen eta, eginez gero, paperean nahiago dut. Berdin zait zein irakurri, baina egia esan, etxera ekartzen didatena gutxitan hartu eta irakurtzen dut.

Angelita Perera, 49 urte



Batzuetan bakarrik irakurtzen ditut egunkariak. Lekuaren arabera, paperean irakurtzea nahiago dut: bazkaltzen banago edo etxetik kanpo banaiz erosoagoa egiten zait papera. Baina Interneten irakurtzea ere aukera ona da. Edozein egunkari irakur dezaket, baina El Correo eta El Diario Vasco irakurtzen ditut gehien bat.



Paqui Utrera, 56 urte



Alberto Moreno, 50 urte

Egunero irakurtzen dut egunkaria, paperean. Asteazkenean El Correo irakurtzen dut gehien bat, baina asteburuetan El País ere egiten diot begiratua. Egunkaria irakurtzea denbora librearekin lotzen dut.

Leire Elustondo eta Nora Mateos

akerlei
HEZIKETA-ZENTROA



- Laguntza-eskolak.
- Ingelesa, frantsesa eta alemana.
- Ume eta helduentzat.

...matrikula zabalik!

Bizkaia etorbidea 5
48260 - Ermua
943 17 66 32
akerlei@akerlei.com

uriarte asesores ✓

Aholkularitza fiskala eta lege aholkularitza

Komentukoa 3 behea · Tel. 943 179 040 · Faxa 943 179 197
48260 · Ermua · Bizkaia

ZINEA

3tik 4ra:
'Un dios salvaje' + 'Eva'

5ean:
'Las aventuras de Tintín 3D'. 20.30ean.

10etik 12ra:
'Anonymous' + '5 metros cuadrados'

17tik 19ra:
'Margin Call' + 'Bi anai'
Hainbat ordutegi. Ermua Antzokian. Sarrera: 4€

ZINE-KLUBA

Hilak 1:
'El silencio del agua'

Hilak 8, 15 eta 22:
Dokumentalaren zikloa

Hilak 29:
'Melancolía'
20.30ean. Ermua Antzokian. Sarrera: 3€

UMEENTZAKO ZINEA

Hilak 4:
'Tintín 3D'

Hilak 11:
'El gato con botas 3D'

Hilak 18:
'Olentzero'
17.00etan. Ermua Antzokian.

MUSIKA

Hilak 17:
Jazz-blues kontzertua:
The Weedwackers.
20.00etan. Lobiano Kultur Gunean.
Sarrera: 8€

Hilak 21:
Alboka Musika Eskolako ikasleak. 19.00etan.
Ermua Antzokian.
Sarrera dohainik.

Hilak 30:
Kontzertua: Quique González. 22.15ean.
Ermua Antzokian.
Sarrera: 12€

Hilak 31:
Kalejira: Ermuan kantuan. 12.30ean. Orbe Kardenalaren plazatik.

ANTZERKIA

Hilak 2:
'Ocasiones especiales', Jorge Roelas seta Kitti Manverekin. 22.15ean.
Ermua Antzokian.
Sarrera: 12€

Hilak 9:
'Diez negritos', Suteji Antzerki taldearen eskutik. 22.15ean.
Ermua antzokian.
Sarrera: 8€

UMEENTZAKO EKITALDIAK

Hilak 3:
Ipuin-kontaketa .
17.30ean.
Udal liburutegian.

Hilak 17:
'Anaki'. Logela multimedia taldearen eskutik. 17.00etan.
Ermua Antzokian.
Sarrera: 4€

Hilak 24:
Olentzero txiki.
11.00etan. Orbe Kardenalaren plazatik.

Hilaren 26tik 4ra:
Gabonetako Haur Parkea: puzgarriak, ohe elastikoak, jumper, ludoteka, bideo-konsoleak, irakurtzeko txokoa, tailerrak... Kiroldegian. 11.00etatik 13.00etara eta 16.00etatik 20.00etara. Hilaren 26an bakarrik arratsaldean, hilaren 31n bakarrik goizean eta urtarrilaren 1ean itxita.
Sarrera: 2€ eguneko.

Hilak 27:
Pailazoen ikuskizuna: Txirri, Mirri eta Txiribiton Junior. 17.00etan.
Ermua Antzokian.
Sarrera: 4€

Hilak 29:

Haurrentzako antzerkia: 'Txirulari magikoa', Paraiso antzerkiaren eskutik. 17.00etan.
Ermua Antzokian.
Sarrera: 4€

Hilak 31:

Olentzeroaren harrera. 18.00etan. Orbe Kardenalaren plazatik.

ERAKUSKETAK

Hilaren 12tik 23ra:
Margoa: Udal Margo Eskolako ikasleak.

Lanegunetan 18.00etatik 20.00etara.
Jaiegunetan 12.00etatik 14.00etara eta 18.00etatik 20.00etara.
Lobiano kulturgunean.

Patxi López

Harategia



M. LAZKANO

BERTOKO OKELAK
Geure Baserrian
Hazitako Txalak
GEUK GIZENDUTAKO
ABELTZANTZA
Merkatua, 36-37 zbk.k
Tfnoa. 943 17 05 84
Ermua

OPTICA
J. CASADO




Lenteak
Audifonoak
Graduatutako Antiajuak
Eguzkitako Antiajuak

Kantabria, 2
Tfnoa. 17 33 57

ERMUA


MIGUEL
Harategia



TXORIZOAK
ODOLOSTEAK

Probaleku, 3
☎ 17 05 63
ERMUA
(Bizkaia)

hamburguesería
TITANIK



Pintxo dastaketa
poteoan

Kantabria 2 • Tlf: 17 67 83

GREMIOEN GIDA

DEKORAZIOA
OBREN KOORDINAZIOA * MARIAN CARRACEDO DEKORATZAILEA

dekorazio estudioa

trastévere
barruko dekorazioa

san pelaio, 26 ermua
tel/faxa. 943 17 90 89
trastevere@wanadoo.es

ITURGINTZA

FONTANERIA
B. DE DIOS

Baimendutako instalatzaileak
iturgintza, gasa, kalefakzioa eta
petrolio produktua
Komunetako altzariak
eta osagarriak

Gipuzkoa etorb., 48 - behea
Tel/Fax. 943 17 01 09
E-maila: bdedios@euskalnet.net



ELEKTRIZITATEA

BETA

**ARGIZTAPENA
ELEKTRIZITATEA**

- Proiektuak
- Instalazioak
- Erreformak
- Kalefakzioa
- Gaueko tarifa
- Erradiadore elektrikoak

Diputazio, 13 943 17 65 25
689 23 31 71

ERROTULAZIOA

ROTEK
rótulos

- Argi errotuloak
- Autoendako errotuloak
- Barne errotulazioa
- Irudi korporatiboa
- Neoia
- Inpresio digitala formato handian

Goitondo behekoa industrialdea
C-1 partzela, 5 behea (Mallabia)
eta Faxa: 943 17 00 36 • rotek@telefonica.net

PINTURAK

J. LUCAS

PINTURA EN GENERAL

- Er muko
- Merkatarien
- Elkarteko kidea.
- 3 hilean ordaindu
- interes barik

630 22 51 36
ermua@hotmail.es

ITURGINTZA
ITURGINTZA, GAS ETA KALEFAKZIOA

LUIS VALLE

Bainugelen erakusketa
943 17 15 56

Tailerra
943 17 23 56

Goienkale z/g

PERTSIANAK

TOLDOS Y PERSIANAS ORBE

- MUNTAIA ETA KONPONKETA
- MOTORIZAZIOA
- PERTSIANA DEKORATIBOAK
- PERTSIANA BILGARRIAK
- SEGURTASUN PERTSIANAK.

TAILERRA:
Zearreko buelta 2
943 17 66 34
630 01 13 41

ERAKUSKETA: Karabixa, 1
Tel. 943 17 98 60

ARROZTEGIA

Iraner
Puertas EDER Carpinteria

- Ateak, horma-armairuak, tarimak...
- Burdindegiko artikulua salgai
- Giltzen kopiak, ebanisteria
- Gremioen koordinazioa

Bizkaia etorbidea 10, behea Ermua. Tel. 943174925 iranercb@gmail.com

TELEKOMUNIKAZIOA

Cable Spot

25 urteko esperientzia dugu
antena kolektiboak eta
atezain automatikoak
instalatzeko

- Telefonía mugikorra.
- Zuntz-optikoa.
- Banda zabala.
- Kable telebista...

euskaltel

ERMUA. San Pelayo 4 behea.
943 172314

**Gremioen Gidan
publizitatea jarri nahi baduzu...
Deitu**

943 17 93 50

edo 688 63 28 76

NATURHOUSE
 "Adituak gara ondo elikatzen irakasten"
 AINARA IRIONDO ANSOLA
 Giza elikaduran eta Dietetikan Diplomata
 Komentukua 1, behe. 943 17 63 72

OINAK LEIRE MAYORA
PODOLOGOA
 Erdikokale 1, 1. A
 48260 Ermua
 © 943 17 47 44

Irale
 hortz klinika
Leire Irazu Garitaonandia
 • Ortodontzia • Aho zirujia
 • Pedriodontzia • Implanteak
 • Odontologia orokorra
 Zeharkale 8, behe 943 17 71 34
 www.irale.com

UME ETA HELDUENDAKO
**PSIKOLOGIA
 KABINETEA**

**Arrate
 Garitaonandia**
 HAUR, NERABE ETA HELDUENTZAKO
TRATAMENDUAK
 Bidebarrieta, 27-B (3. atea) 943 20 22 66
 a_garitaonandia@terra.es

san pelayo
 clínica dental hortz klinika
 Implanteak
 Ortodontzia
 Periodontzia
 Hortz-zuriketa / Estetika dentala
 Odontologia orokorra
 Protesiak
 P.A.D.I. - I.M.Q. - SANITAS
 San Pelayo 5, 1. Olatz Garcia Arregui
 Ermua (Bizkaia) 943 17 04 04

OSASUN GIDA

**NEREA IÑIGUEZ
 HORTZ KLINIKA**
 - Aho eta implante kirurgia
 - Hortzetako protesiak
 - Hortz estetika
 - Ortodontzia
 - Odontopediatria
 - Endodontzia eta odontologia kontserbadorea
 Hertz klinika berri eta handitu dugu
 San Inazio 4 Tel.: 943 030 512
 Ermua niklinika@gmail.com

fisioterapia
 eta osteopatia
 zentroa
aitziber
 Aitziber Fernández
 Telf. 943 17 60 95
 629 88 70 89
 Sexto Centenario 13,behea
 48260 ERMUA (Bizkaia)

NATURA
 Cristina García Pérez
 Belar-denda eta dietetika
 • Elikagai biologikoak
 • Terapia naturalak
 • Naturopatarekin kontsultak
 • Masajeak
 • Dietistarekin kontsultak
 • Kosmetika biologikoa
 Zeharkale 12 behe esk. · ERMUA
 943176594/naturcriss77@hotmail.com

Yoga eskola
 Arnasketa eta ariketa fisiko egokiak
 Erlaxazioa eta meditazioa
 Osteopatia eta bertebrologia
 Anginak sendatzeko masajea

 San Roke 24, behea
 943 74 85 93
 685 722131 (Idoia) - 639 652729 (Lourdes)

Osasun gidan agertu nahi baduzu,
 deitu 943 17 93 50
 edo 688 63 28 76 telefonora